

MONZON

LEHEN PEREDIKUA

- 1**
Agur bat beroa dugu
kantatzez nahi hedatü
Honat jin zideen oroer
historia bat kontatü.
- 2**
Monzonen bizitzea da
egünko gei berezia
Trajeria honekilan
ikertüz haren bizia.
- 3**
Hau sortürik zen Bergaran
Ikasi züen gazterik
Tolosa ondoan eüskara
arbasoen xendetarik.
- 4**
Haütatü züan Maria
emazte zoin berezia
Ekintzetan, nekezietan
lagüntza paregabea.
- 5**
Bere eüskaldün ideiak
goizik zütüan asmatü
Eta politika mailan
bere bidea haütatü.
- 6**
Eüskal Herriko bozketan
haütatürik ordezkari
Izentatürik izan zen
barne ministro güdari.
- 7**
Gerla galdü bezain sarri
Hürrün ihes egin züan
Ameriketan zen hasi
antzerki idazlanetan.
- 8**
Geroztik iparraldean
Donibane Lohizunen
Et(a) Eüskal Herri barnean
goraki obra hedatzen.
- 9**
Anai Artea Alkartea
sortürik ihesliarren
Bere zonbait lagünekin
düe hanitx salbatüren.

LEHEN PEREDIKUA

- 1**
Agur bat beroa dugu
kantatzez nahi hedatu;
honat jin zareten orori
historia bat kontatu.
- 2**
Monzonen bizitzea da
egungo gai berezia.
Trageria honekin
ikertuz haren bizia.
- 3**
Hau sorturik zen Bergaran.
Ikasi zuen gazterik
Tolosa ondoan euskara
arbasoen xendetarik.
- 4**
Hautatu zuen Maria
emazte. Zein berezia!
Ekintzetan, nekezietan,
laguntza paregabea.
- 5**
Bere euskaldun ideiak
goizik zituen asmatu,
eta politika-mailan
bere bidea hautatu.
- 6**
Euskal Herriko bozketan
hautaturik ordezkari,
izendaturik izan zen
Barne ministro gudari.
- 7**
Gerla galdu bezain sarri
urrun ihes egin zuen.
Ameriketan zen hasi
antzerki-idazlanetan.
- 8**
Geroztik Iparraldean,
Donibane Lohizunen.
Eta Euskal Herri barnean
goraki obra hedatzen.
- 9**
Anai Artea elkartea
sorturik iheslarien,
bere zenbait lagunekin
dute anitz salbatuko.

jin: etorri

trageria: pastoral

sortu: jaio

xenda: bide

bozka: hauteskunde

sarri: laster

iheslarien: iheslarien alde

10
Prentsaurreko eta mitin
eginen dū hanitxetan
Gose oporra, presoak
dirate ondoramenetan.

11
Abertzale handietan
Date haren historia
Izan beita egiazko
euskaldūn zerbützaria.

12
Orai gitean goxoki
so-egile maitagarriak
Pastoral baten izadian
sar lasaiki oro lotuak.

10
Prentsaurreko eta mitin
eginen du anitzetan.
Gose-oporra, presoak
dira ondoramenetan.

11
Abertzale handietan
dateke haren historia,
izan baita egiazko
euskaldun zerbitzaria.

12
Orain gaitezen goxoki,
so-egile maitagarriak,
pastoral baten izadian
sar lasaiki, oro lotuak.

gose-opor: gose-greba
ondoramen: ondorio

dateke: izanen da, izango da

izadi: mundu

SATANAK SU EMAILE

Jalgi antzerki barrenetik Lazkarro eta Lozabi satanak.

**Lazkarro
13**

Nontik horra hiz Lozabi
nahasbide ezaririk
Hegoaldeko bidetik
ala Xibero aldetik.

**Lozabi
14**

Zure menpean nukezü
güdarier bühürtzeko
Poesiaz, antzerkiaz
behar bada trüfatzeko.

**Lazkarro
15**

Behar diagü nabarki
izan süpizle gidari
Tilet zonbait haütatürük
traputzak gure bazkari.

**Lozabi
16**

Gizon pardeildünentako
badit dantza egiteko
Altxa detzagün aztalak
Pekü sordei ezarteko.

SATANAK SU EMAILE**Lazkarro
13**

Nondik horra haiz, Lozabi,
nahasbide ezarririk?
Hegoaldeko bidetik
ala Xibero aldetik?

**Lozabi
14**

Zure menpean nukezu
gudariei bihurtzeko,
poesiaz, antzerkiaz
behar bada trufatzeko.

**Lazkarro
15**

Behar diagu nabarki
izan su-pizle gidari,
tilet zenbait hautaturik,
traputzak gure bazkari.

**Lozabi
16**

Gizon fardelendako
badut dantza egiteko.
Altxa ditzagun aztalak
peku sordei ezartzeko.

horra izan: etorri

nukezu: izango nauzu
bihurtu: aurre egin

trufa egin: burla egin

tilet: zirikada, ziztada
traputz: esamesa

fardel: ganorabako, inozo
aztal: orpo
peku: gaiztakeria
sordei: txar

LEHEN JELKALDIA

Baserrira joaten da Monzon bere euskararen trebatzera.

**Isidro
17**

Zeren gü heben ütziarik joaiten hiz baserriala Entelegatzen ez diat aitak et(a) amak bezala.

**Monzon
18**

Ago bakean Bergaran Etxekoak lagünt goxoki Nik behar diat emeki eüskara hezi osoki.

**Aita
19**

Arren hola denaz gainen Abiloa bihotz arin; Gü botzik gütükek beti harremanetan hirekin.

**Ama
20**

Urkizun ene semea badük arren adiskide Eüskaldünak dira oro egin etzak hire kide.

**Lizardi
21**

Ni ere han bizi nüzü haütatürrik ber bidea Agian ene lagüna sari dükek ber fedea.

22

Errepublikan horra da non da eüskaldün gogoa Behar da egün hedatü heben abertzalegoa.

LEHEN JELKALDIA**Isidro
17**

Zeren gu hemen utziarik joaten haiz baserrira? Entelegatzen ez diat, aitak eta amak bezala.

**Monzon
18**

Hago bakean Bergaran; etxekoak lagun goxoki. Nik behar diat emeki euskara hezi osoki.

**Aita
19**

Arren, hola denaz gainen, habil-hoa, bihotz arin. Gu pozik gaituek beti harremanetan hirekin.

**Ama
20**

Urkizun ene semea baduk, arren, adiskide. Euskaldunak dira oro. Egin itzak hire kide.

**Lizardi
21**

Ni ere han bizi naiz hautaturik ber bidea. Agian ene laguna sarri dukek ber fedea.

22

Errepublika horra da. Non da euskaldun gogoa? Behar da egun hedatu hemen abertzalegoa.

zeren: zergatik

entelegatu: ulertu

arren: beraz

habil-hoa: habil + hoa

gaituek: izanen gaituk

arren: beraz

sarri: laster

dukek: izango duk

horra izan: etorri

KANTA I**Bai euskarari****a1**

Eta bai!, eta bai!
Nik euskarari bai (e)ta bai.

a2

Uso zuria, uso gorria
Dantzan nabil suaren gain...
Uso gorria, uso zuria,
Herriak euskarari bai!
Neure kabia daukat garretan
Neure umeak, neure zain!
Nago odoletan garretan
Txinparta gainetan.
Neure umeak, neure zain...

a3

Uso zuria aurkitu dute
Hotzak dardaraz erd(i)hila...
Uso gorria garretan dator
Euskal Herriaren bila...
Uso zuria lehengoa duzu,
Uso gorria geroa...
Euskal Herritik uso bakar bat
Eguzki aldera doa...

a4

Sanjuan loreek usaina dute,
Eta herriek arima...
Euskal Herria euskara barik
Irin gabeko ogia!
Euskal Herria euskara gabe,
Hegal gabeko usoa!
Uso gaztea airatu hadi
Eta eguzkiraino hoa!

a5

Eta bai!, eta bai!
Nik euskarari bai (e)ta bai!
Eta bai! Eta bai!
Guk Euskarari beti bai!!!

KANTA I**Bai euskarari****a1**

Eta bai!, eta bai!
Nik euskarari bai eta bai.

a2

Uso zuria, uso gorria,
dantzan nabil suaren gain.
Uso gorria, uso zuria,
Herriak euskarari bai!
Neure habia daukat garretan;
neure umeak, neure zain!
Nago odoletan, garretan,
txinparta gainetan.
Neure umeak, neure zain.

a3

Uso zuria aurkitu dute
hotzak dardaraz erdi hila.
Uso gorria garretan dator
Euskal Herriaren bila.
Uso zuria lehengoa duzu;
uso gorria, geroa.
Euskal Herritik uso bakar bat
eguzki aldera doa.

a4

San Joan loreek usaina dute,
eta herriek, arima.
Euskal Herria euskara barik,
irin gabeko ogia!
Euskal Herria euskara gabe,
hegal gabeko usoa!
Uso gaztea, airatu hadi,
eta eguzkiraino hoa!

a5

Eta bai!, eta bai!
Nik euskarari bai eta bai!
Eta bai! Eta bai!
Guk Euskarari beti bai!!!

BIGARREN JELKALDIA

Aberriaren aldeko mitina.

Maria Josefa**23**

JEL Alderdian sarturik
Euskadiko buru batzar
Eta laster depütatü
badüzü indar non ezar.

24

Emazte güzientako
balükezü egiteko
Eta prefosta ere bai
Eüskaldünen laüdatzeko.

Monzon**25**

So egizü üngürüan
Herriaren zerbütüan
Bagira hanitx bidean
abertzaletarzünean.

26

Bena bestalde zuretzat
ene bihotza zitazüt
Aldikal süaz beztitü
egün aitortzen dereizüt.

Maria Josefa**27**

Beti plazer handia dit
nik ere zure ondoan
Zü ezagütüz geroztik
amodioa düt gogoan

Andoni**28**

Zoinen eijer amodioa
hitzik gabe begietan
Plazer düt züen ikustez
gaineala ber bideetan

Ajuriaguerra**29**

Algarrekilan xedeak
hola dira egingarri
Emaztea gizonaren
zonbat ordüz altxagarri.

30

Bena bizi dük jentea
tenore lazgarrietan
Behar diagü plantatü
irabazi bai bozketan.

BIGARREN JELKALDIA**Maria Josefa****23**

JEL alderdian sarturik,
Euskadiko Buru Batzar.
Eta laster diputatu.
Baduzu indar non ezar.

24

Emazte guziendako
bazenuke egiteko.
Eta prefosta ere bai
euskaldunen laudatzeko.

Monzon**25**

So egizu inguruan
Herriaren zerbitzuan.
Bagira anitz bidean
abertzaletasunean.

26

Baina bestalde zuretzat
ene bihotza zait
aldikal suaz beztitu.
Egun aitortzen dizut.

Maria Josefa**27**

Beti plazer handia dut
nik ere zure ondoan.
Zu ezagutuz geroztik
amodioa dut gogoan.

Andoni**28**

Zeinen eijer amodioa
hitzik gabe begietan!
Plazer dut zuen ikustez,
gainera, ber bideetan.

Ajuriaguerra**29**

Elkarrekin xedeak
hola dira egingarri.
Emaztea gizonaren
zenbat orduz altxagarri.

30

Baina bizi duk jendea
tenore lazgarrietan.
Behar diagu plantatu,
irabazi bai bozketan.

prefosta: zalantza gabe**aldikal:** aldiro, aldi bakoitzeko
beztitu: jantzi**eijer:** eder, polit**gizonaren:** gizonarentzat**bozketa:** hauteskunde

HIRUGARREN JELKALDIA

Monzonen ezteiak, Maria Josefa Ganuzarekin.

Auzapeza**31**

Egün gira plazerekin
bi bihotzen jüntatzera
Heltü oro algarrekin
hau beita biltzar ederra.

Apeza**32**

Maria Josefa Ganuza, hartü nahi düzüa
esposetako, Telesforo Monzon hortxe
dena?

Maria Josefa**33**

Bai

Apeza**34**

Eta zük Telesforo Monzon, hartü nahi
düzüa esposatako Maria Josefa Ganuza
heben dügüna?

Monzon**35**

Bai

Apezak**36**

Jinkoak eman deizüe
amodioa, fedea
Ez desegin deüserengatik
gure legea eliza

Aingeruak**37**

Egün zidee ezkontürük
Jinkoaren aitzinean
Hor lagün eta lankide
borrokarien bidean.

38

Bizia lüze dateke
beharko norabidetü
Ertza eder ikusteko
algarri beti fidatü.

HIRUGARREN JELKALDIA**Auzapeza****31**

Egun gara plazerekin
bi bihotzen juntatzera.
Heldu oro elkarrekin,
hau baita biltzar ederra.

Apeza**32**

Maria Josefa Ganuza, hartu nahi duzua
esposetako Telesforo Monzon hortxe
dena?

Maria Josefa**33**

Bai

Apeza**34**

Eta zuk, Telesforo Monzon, hartu nahi
duzua esposatako Maria Josefa Ganuza
hemen duguna?

Monzon**35**

Bai

Apezak**36**

Jainkoak eman dizue
amodioa, fedea.
Ez desegin deusengatik
gure legea, Eliza.

Aingeruak**37**

Egun zarete ezkondurik
Jainkoaren aitzinean.
Hor lagun eta lankide
borrokalarien bidean.

38

Bizia luze dateke;
beharko norabidetü.
Ertza eder ikusteko
elkarri beti fidatu.

nahi duzua: nahi al duzu
espos-etako: senar-tzat

esposa-tako: emazte-tzat

dateke: izanen da

KANTA II

Amodioaren hatsa

b1

Igaraiten denean, bi jenten artean
Ez da behar bühürtü, holako denean
Aspaldian gogoan, edo uhülgüan
Heltzen zaikü oroer, bihotzen barnean.

b2

Amodioan oreka, hauskor arteetarik
Hartzen dü zonbaitetan, molde orotarik
Ordüan egon azkar, ez ützi arterik
Hola beita egiten, bizi bat ederrik .

b3

Amodio goxoa, zoiñen miresgarri
Batean solasbide, bestean pizgarri
Aize gorri bai xuri, beti sendigarri
Ausarki dü etxeki, esposer lokarri.

Errepika

b4

Amodioaren hatsa, heltzen da isilik
Haren hegalaren pean, ez üken axolik
Mendre ala pare gabe, ez da haütatürrik
Alta zahar edo gazte, denak aldatürrik.

KANTA II

Amodioaren hatsa

b1

Igaraten denean bi jenderen artean
ez zaio behar bihurtu holako denean.
Aspaldian gogoan edo uhulguan,
heltzen zaigu orori bihotzaren barnean.

b2

Amodioan oreka hauskor arteetarik,
hartzen du zenbaitetan molde orotarik.
Orduan egon azkar, ez utzi arterik,
hola baita egiten bizi bat ederrik.

b3

Amodio goxoa, zeinen miresgarri,
batean solasbide, bestean pizgarri.
Haize gorri bai zuri, beti sentigarri,
ausarki die atxiki esposei lokarri.

Errepika

b4

Amodioaren hatsa heltzen da isilik.
Haren hegalaren pean ez ukan axolik.
Mendre ala paregabe, ez da hautaturik.
Alta, zahar edo gazte, denak aldaturik.

jende: pertsona
igaran: igaro
bihurtu: aurre egin
uhulgu: burrunba

azkar: sendo

mendre: kaskar, ziztrin
alta: hala ere

LAUGARREN JELKALDIA

Monzon, Madrileko Parlamentuan diputatu, beste gazte zenbaitekin.

**Monzon
39**

Eüskal Herriak goraki erakutsi dü bozketan
Autonomia dü nahi geroa hartüz esküetan.

**Don Justo
40**

Badakiagü oroek Probintzia güzietan
Gei düzüela berriz jarri hori nahaskerietan.

**Agirre
41**

Hegoaldeko indarra eraiki behar dügüla
Popülüaren galtoa ez dü ahazten seküla.

**Don Astolarri
42**

Eüskaldüna lanjerosa emaiten dü arrenküra
Beti danik gure traba hedatzen beitü gezürra.

**Irujo
43**

Zer den egün züen lotsa askitan ikusi dügü
Eta züer üztartzeko ez girate aski bürüngürü.

**Don Kasko
44**

Erresumaren honetan har dezagün Nafarroa
Eta ikusiren dügü eüskaldün ahoberoa.

Badoaz diputatuak.

LAUGARREN JELKALDIA**Monzon
39**

Euskal Herriak goraki erakutsi du bozketan:
autonomia du nahi, geroa hartuz eskuetan.

**Don Justo
40**

Badakiagu orok probintzia guzietan
gai duzuela berriz jarri hori nahaskerietan.

**Agirre
41**

Hegoaldeko indarra eraiki behar dugula;
populuaren galdea ez dut ahazten sekula.

**Don Astolarri
42**

Euskalduna, lanjerosa; ematen du arrangura.
Betidanik gure traba, hedatzen baitu gezurra.

**Irujo
43**

Zer den egun zuen lotsa askitan ikusi dugu.
Eta zuei uztartzeko ez gara aski buringuru.

**Don Kasko
44**

Erresumaren onetan har dezagun Nafarroa.
Eta ikusiko dugu euskaldun ahoberoa.

jarri gai duzue:
jartzekoak zarete

galde: eskari

lanjeros: arriskutsu
arrangura: kezka

lotsa: beldur

buringuru: burugabe

BOSGARREN JELKALDIA

Militarrak altxatu direla, euskal gobernu bat eraikitzen du Agirrek. Armen erostera igortzen du Monzon, gerla hullan baita.

Agirre**45**

Euskadiko Lehendakari
Bozken bidez haütatürik
Orai behar dü't altxatü
gobernü bat bertan txütik.

46

Gerla zibila beitügü
behar diagü armatü
Monzon abiloa zale
erosle haigü haütatü.

Monzon**47**

Banoazü orai bertan
Europa dü't kurritüko
Ertzaintza bat airatürik
heben züen zerbütxüko.

Leizaola**48**

Frankistak dira hullantzen
behar dügü Gipuzkoa
Ifernütik begiratü
zaintüz euskaldün gogo.

Irujo**49**

Bizkaiko gazteria
Date bihar güdaria
Altxa dezagün armada
segitzez Lehendakaria.

BOSGARREN JELKALDIA**Agirre****45**

Euskadiko lehendakari
bozken bidez hautaturik,
orain behar dut altxatu
gobernu bat bertan zutik.

46

Gerla zibila baitugu,
behar diagu armatu.
Monzon, habil-hoa zalu.
Erosle haigu hautatu.

Monzon**47**

Banoa orain bertan.
Europa dut korrituko.
Ertzaintza bat airaturik,
hemen zuen zerbitzuko.

Leizaola**48**

Frankistak dira hullantzen.
Behar dugu Gipuzkoa
infernutik begiratu,
zainduz euskaldun gogo.

Irujo**49**

Bizkaiko gazteria
dateke bihar gudaria.
Altxa dezagun armada,
segitzez lehendakaria.

hullan: hurbil**bertan:** berehala**zalu:** arin**korritu:** zeharkatu**hullantu:** hurbildu**dateke:** izanen da, izango da

SEIGARREN JELKALDIA

Eibarreko guduka 1936ko irailean. Armak heltzen itsasotik.

**Monzon
50**

Itsasotik heltzen zaikü
Lezo de Urreztietä
Nik erosi armekilan
har detzagün esküetan.

**Agirre
51**

Lehen beno lehen dütügü
horik oro karreatü
Eibarren ekürüarazi
otso beltzak kanporatü.

**Pikaza
52**

Ni aldiz Ertzaintzarekin
banoazü Bilborano
Konpainia bat hartzen dü
güdarren lagüntzeko.

**Beldarrain
53**

Orai lürreko armada
ontsa dügü antolatü
Goratü behar dü Lezo
harek beitä baldintzatü.

**Rezola
54**

Aski badit bülegoan
eginik lan itzalpean
Italiano, aleman
ezar ditzagün kanpoan.

**Leizaola
55**

Lürrean eta zelüan
faxistarren alkargoa
Behar dügü beheratü
eta garaitü otsoa.

Jalki turken aldedik: Mola bere soldaduekin, Schmidt eta Wandel alemanak, eta italiar zenbait.

**Mola
56**

Egün heziren zütüegü
ontsa lagüntürük gira
Suntsitürük beitateke
eüskaldünen aberria.

**Schmidt
57**

Gure hegazkin arinak
dira zure zerbütükü
Bonba tornü bat barnean
aisa dügü hedatüko.

SEIGARREN JELKALDIA**Monzon
50**

Itsasotik heltzen zaigu
Lezo de Urreztietä
nik erosi armekin.
Har ditzagun eskuetan.

**Agirre
51**

Lehen baino lehen ditugu
horiek oro garraiatu.
Eibarren ekurarazi,
otso beltzak kanporatu.

**Pikaza
52**

Ni, aldiz, Ertzaintzarekin
banoa Bilboraino.
Konpainia bat hartzen dut
gudarien laguntzeko.

**Beldarrain
53**

Orain lurreko armada
ontsa dugu antolatu.
Goratu behar dut Lezo,
hark baitu baldintzatu.

**Rezola
54**

Aski badut bulegoan
eginik lan itzalpean.
Italiar, aleman,
ezar ditzagun kanpoan.

**Leizaola
55**

Lurrean eta zeruan
faxisten elkargoa
behar dugu beheratu,
eta garaitu otsoa.

**Mola
56**

Egun heziko zaituztegu;
ontsa lagundurik gara,
suntsiturik baitateke
euskaldunen aberria.

**Schmidt
57**

Gure hegazkin arinak
dira zure zerbitzuko.
Bonba-tornu bat barnean
aise dugu hedatuko.

ekurarazi: geldiarazi

ontsa: ongi

dateke: izanen da

Guduka. Schmidt eta Wandel hilik.
Euskaldunak garaile. Frankistek ihes,
turken aldetik.

Irujo

58

Etsaia gibel hasi duk
agian beita düdatü
Beste güdükarik badate
behar dükeagü prestatü.

Monzon

59

Popülúa ari zaikü
presoneren porrokatzen
Ekürüarazi behar diat
ez beitüe gogozkatzen.

Agirre

60

Ehüneta lauetan hogei
hilik ezin ekürüarazian
Egin ditzegün ordari
ehortzetak agerian.

Irujo

58

Etsaia gibel hasi duk,
agian baita dudatu.
Beste gudukarik badateke
behar dikeagu prestatu.

Monzon

59

Populua ari zaigu
presoneren borrokatzen.
Ekurarazi behar diat,
ez baitute gogozkatzen.

Agirre

60

Ehun eta lauetan hogei
hilik ezin ekurarazian.
Egin ditzagun ordari
ehortzetak agerian.

gibel: atze(ra)

guduka: gudu, bataila
dikeagu: izanen diagu

presoneren: presoen alde
ekurarazi: geldiarazi
gogozkatu: gogoeta egin

lauetan hogei: laurogei
ekurarazi: geldiarazi
ordari: ordain
ehortzeta: hileta

KANTA III Itxaropena

c1

Itxaropena eder, haurrenen begian
Egoiten balinbada, haren bizitzean
Zure itxura argi, gañhaldi beltzean
Ezaxol zirateke, beti bihotzean.

c2

Esperantxaren garra, batean desbardina
Goiz edo berant zira, bai dolore mina
Esküak apaltürrik, gogoan jakina
Bena zer egin behar, goatzan aitzina.

c3

Gizon ala emazte, ber itxaropena
Amets baten izarra, hori da ororena
Zü zira ederrena, gaü eta egüna
Bakoitxari eskentzez, gogoan dügüna.

Errepika

c4

Itxaropena beti, behar da ospatü
Zühainaren erroak, barnatik lantatü
Eüskaldün izateko, zütügü haütatü
Gogoa zurekilan, gira abiatü.

KANTA III Itxaropena

c1

Itxaropena eder haurrenen begian,
egoten baldin bada haren bizitzean.
Zure itxura argi, gaualdi beltzean.
Ezaxol zarateke beti bihotzean.

c2

Esperantzaren garra, batean desberdina.
Goiz edo berant zara, bai, dolore mina.
Eskuak apaldurik, gogoan jakina,
baina zer egin behar? Goazen aitzina.

c3

Gizon ala emazte, ber itxaropena.
Amets baten izarra, hori da ororena.
Zu zara ederrena, gau eta eguna,
bakoitzari eskaintzez gogoan duguna.

Errepika

c4

Itxaropena beti behar da ospatu.
Zuhainaren erroak barnetik landatu.
Euskaldun izateko zaitugu hautatu.
Gogoa zurekin, gara abiatu.

zarateke: izanen zara

jakina: dakiguna

zuhain: zuhaitz

ZAZPIGARREN JELKALDIA

Euskadiko buruzagiak eta gudariak
gerlaren norabideaz elestan.

**Agirre
61**

Ixterbegia orotarik
orai heltzen ari zaikü
Ihesbiderik ez dügü
behar dügüa etsitü.

**Monzon
62**

Eibar, Durango, Elgetan
gure hilen omenetan
Ez dezagün ützi ere
Bilbo haien esküetan.

**Leizaola
63**

Egün Bilboko karrika
etxekei behar dügüla
Hori da ene xedea
haien menpean seküla.

64

Heben diren presonerak
lagüntüko dütüagü
Lekü segür batetara
ez da behar mendekatü.

Jalgi Mola eta Mancini bere soldaduekin.
Guduka.

**Ajuriagerra
65**

Bilbo galdü bezain sarri
Agitü niz ordezkari
Enetako da kargüa
izateko tratülari.

66

Armak pausatzen dütügü
segürtatüz larderia
Nahi dizügü halere
presoneren ohorea.

**Mancini
67**

Gerla galdürrik düzüe
Baldintza xüxenak dira
Hartzen düüt erabakia
eta hortan ba(ra)tzen gira.

ZAZPIGARREN JELKALDIA**Agirre
61**

Ixterbegia orotarik
orain heltzen ari zaigu.
Ihesbiderik ez dugu.
Behar dugua etsi?

**Monzon
62**

Eibar, Durango, Elgetan
gure hilen omenetan
ez dezagun utzi ere
Bilbo haien eskuetan.

**Leizaola
63**

Egun Bilboko karrika
atxiki behar dugula;
hori da ene xedea.
Haien menpean, sekula ez.

64

Hemen diren presonerak
lagunduko ditiagu
leku segur batera.
Ez da behar mendekatu.

**Ajuriagerra
65**

Bilbo galdu bezain sarri
agitu naiz ordezkari.
Enetako da kargua
izateko tratulari.

66

Armak pausatzen ditugu
segurtatuz larderia.
Nahi dugu, halere,
presoneren ohorea.

**Mancini
67**

Gerla galdurik duzue.
Baldintza zuzenak dira.
Hartzen dut erabakia
eta horretan baratzen gara.

elesta: hizketa**izterbegi:** etsai**behar dugua:** behar al dugu**karrika:** kale**presoner:** preso**sarri:** laster
agitu: gertatu**larderia:** gogorkeria**baratu:** geratu

KANTA IV Zuri Euskal Herria

d1

Nork ikusi dü, goiz azkorrian, leinürü
paregabetan
Nork ezarri dü, besten menpean , betikoz
dolü batetan
Bere legeak eta foruak, galdürük gaü
zabaletan
Eüskal Herria, bere jentea, egün pena
handietan.

d2

Gure bihotzez eta begiez, zütügü beti
miratü
Paregabeko izar berezi, kantüz ere
izentatü
Bena etsaiak egün zanpatü, dolürük gabe
zapatü
Ikusi gabe, argiñabarra, behar düzü
akabatü.

Errepika

d3

Hebenko lüraldea, beitzen lotsagarri
Joan behartü zaikü, ütziarik lokarri
Bena egonen gira betikoz güdari.
Zuri Eüskal Herria, lotürük egarri.

KANTA IV Zuri Euskal Herria

d1

Nork ikusi du goiz azkorrian, leinuru
paregabeetan?
Nork ezarri du besteen menpean betikoz
dolu batean?
Bere legeak eta foruak galdurik gau
zabaletan,
Euskal Herria, bere jentea, egun pena
handietan.

d2

Gure bihotzez eta begiez zaitugu beti
miratu.
Paregabeko izar berezi kantuz ere
izendatu.
Baina etsaiak egun zanpatu, dolurik gabe
zapatu.
Ikusi gabe arginabarra, behar duzu
akabatu.

Errepika

d3

Hemengo lurraldea baitzen lotsagarri
joan behartu zaigu, utziarik lokarri.
Baina egonen gara betikoz gudari,
zuri —Euskal Herria— loturik, egarri.

azkorri: egunsenti

leinuru: distira

miratu: miretsi

zapatu: zanpatu

lotsagarri: beldurgarri

ZORTZIGARREN JELKALDIA

Euskal Herritik joan behar du Monzonek,
bere emaztearekin.

Maria Josefa**68**

Lehen beno lehen dūgū
behar orai abiatū
Franco-ren eskūpeetan
ez beita behar baratū.

69

Donibane Lohizūne
behar dizūgū haütatū
Ezagützen dit etxe bat
behar beitätū gordatū.

Monzon**70**

Ez girateke gorderik
Frantzian beita alemana
Egūn gūziez ondoan
goatzen Ameriketara.

Maria Josefa**71**

Marseillatik abiatūren
gira itsasontziarekin
Mexikon egonen gira
beste lagūn zonbaitekin.

ZORTZIGARREN JELKALDIA**Maria Josefa****68**

Lehen baino lehen dugu
behar orain abiatu,
Francoren eskupeetan
ez baita behar baratu.

69

Donibane Lohizune
behar dugu hautatu.
Ezagutzen dut etxe bat,
behar baitugu gorde.

Monzon**70**

Ez garateke gorderik
Frantzian baita alemana.
Egun guzietz ondoan
goazen Ameriketara.

Maria Josefa**71**

Marseillatik abiatuko
gara itsasontziarekin.
Mexikon egonen gara
beste lagun zenbaitekin.

baratu: gelditu, egon**garateke:** izanen gara

BEDERATZIGARREN JELKALDIA

Monzon bere emaztearekin horra da Ameriketatik 1946an gerla Europan urrendu bezain sarri. Donibane Lohizunen egonen dira. Harremanetan sartzen da Begiraleak taldearekin.

**Monzon
72**

Züen agurtzera nüzü egün horra plazerekin Jakinik antzerkietan ahal badela zer egin.

**Larzabal
73**

Guretako ohorea zure heben ükeitea Aisa dizügü eginen zerbait ikusgei haütüa.

**Gaxuxa
74**

Entzün dit Ameriketan ere idatzi düzüla Antzerki bat edo biga egia hori hon deizüla?

**Dominika
75**

Nik badakit besten ganik egin düzüla kantore Eman ezagüzü otoi Gaur entzütoko fabore.

**Maidier
76**

Audela ments badizügü gure taldean arizale Aisa emanen deiküzü Dritxoa ororer zalhe.

**Maria Josefa
77**

Nik uste dit Telesforo "lau kantari eta txori bat" Horiekilan emateko izan ahal lizate bat.

**Monzon
78**

Ikusten dit ez düdala orai mintzatü beharrik Ordüan düüt gogo honez züekilan hartüko karguak.

BEDERATZIGARREN JELKALDIA**Monzon
72**

Zuen agurtzera nauzu egun horra plazerekin, jakinik antzerkietan ahal badela zer egin.

**Larzabal
73**

Guretako ohorea, zure hemen ukaitea. Aise dugu eginen zerbait ikusgai hautua.

**Gaxuxa
74**

Entzun dut Ameriketan ere idatzi duzula antzerki bat edo biga. Egia hori? On deizula!

**Dominika
75**

Nik badakit besteenganik egin duzula kantore. Eman iezaguzu, otoi, gaur entzuteko fabore.

**Maidier
76**

Gainera ments badugu gure taldean arizale. Aise emanen diguzu ditxoa orori zalu.

**Maria Josefa
77**

Nik uste dut Telesforo "Lau kantari eta txori bat" horiekin emateko izan ahal litzatekeela bat.

**Monzon
78**

Ikusten dut ez dudala orain mintzatu beharrik. Orduan ditut gogo onez zuekin hartuko karguak.

horra izan: etorri
urrendu: amaitu
sarri: laster

horra izan: etorri

aise: erraz
hautu: eder, ez edonolakoa

biga: bi

kantore: kanta

ments: eskasia, falta
arizale: antzezle
ditxo: zirikada
zalu: arin, laster

HAMARGARREN JELKALDIA

Jalgi artzainak 1946ko uztailean bortuko bazkaleku batean.

Battitta
79

Euskal Herriko mendia
bedatsean zoin berdea
Gogoan aldiz artzainak
bere aberri maitea.

Antoni
80

Hortxe diaigü gure lürra
alde batetik faxisma
Bestetik lagüntzalea
horren esküetan arma.

Mattin
81

Iratzar hadi lagüna
Heltü dük libertatea
Frantzian bai Espainian
orai beitügü bakea.

Johane
82

Goatzen arren kantatzera
Ahüzkiko ütürriala
Antsiaren ohiltzeko
ahal bezain berehala.

HAMARGARREN JELKALDIA**Battitta**
79

Euskal Herriko mendia
bedatsean zein berdea!
Gogoan, aldiz, artzainak
bere aberri maitea.

Antoni
80

Hortxe diagu gure lurra:
alde batetik faxismoa,
bestetik laguntzailea.
Horren eskuetan arma.

Mattin
81

Iratzar hadi, laguna.
Heldu duk libertatea,
Frantzian bai Espainian
orain baitugu bakea.

Johane
82

Goazen, arren, kantatzera
Ahuzkiko iturrira,
antsiaren ohiltzeko
ahal bezain berehala.

bortu: mendi**bedatse:** udaberri**arren:** beraz, bada**ohildu:** egotzi, bota

KANTA V**Bortuetan artzaina****e1**

Bortüetan artzaina, bedatsean ageri
Ardi saldoarekin, han dü bizigarri
Lagün zonbaitekilan, harturik lokarri
Eüskal Herri orotan beita maitagarri.

e2

Botzik egoiten bada, bortüan berbera
Ezagützen ere dü, hanko goi behera
Haro gaitza denean, ardien biltzera
Eta ments badelarik, baxen ikertzera.

e3

Beti danik badaki, zer den batarzüna
Ardane, Nabolegi, ber alkartzzüna
Lürralde güzietan, ber anaitarzüna
Artzaina bortüetan, zer handitarzüna.

Errepika**e4**

Bortüetan artzaina, behar da aipatü
Herria maite beitätü, harek dü moldatü
Arbasoen indarra, ere ohoratü
Süharki gure lürra, betiko laüdatü.

KANTA V**Bortuetan artzaina****e1**

Bortuetan artzaina bedatsean ageri.
Ardi-saldoarekin han du bizigarri.
Lagun zenbaitekin harturik lokarri
Euskal Herri orotan baita maitagarri.

e2

Pozik egoten bada bortuan berbera.
Ezagutzen ere du hango goibehera.
Aro gaitza denean, ardien biltzera.
Eta ments badelarik, baxen ikertzera.

e3

Betidanik badaki zer den batasuna.
Ardane, Nabolegi, ber elkartasuna.
Lürralde guzietan, ber anaitasuna.
Artzaina bortuetan, zer handitasuna.

Errepika**e4**

Bortuetan artzaina behar da aipatu.
Herria maite baitu, hark du moldatu.
Arbasoen indarra ere ohoratu.
Suharki gure lurra betiko laudatu.

bortu: mendi
bedatse: udaberri
saldo: talde

goibehera: aldapa
aro: eguraldi
ments: falta
baxa: amildegi

bortu: mendi

HAMAIKAGARREN JELKALDIA

Eusko Gudarostea desarmatu behar du Leizaolak.

**Leizaola
83**

Berri txarra behar deizüet zorigaitzez jakinarazi
Desarmatü behar dela armada hel bezain sarri.

**Ordoki
84**

Frantzian gerla eginik güdüka bat irabazirik
Ordai deüsere ez dizügü ükenen horien eskütik?

**Leizaola
85**

Ikustaterik ez düe
Frantzian eta mündüan
Amerikak ützi gütü
jarriz Francoren aldean.

**Ordoki
86**

Eüskal Herriko mendian
prestik dira batailuak
Zer erran behar deiegü
horik orotan hedatüak?

**Leizaola
87**

Bürüaz beste egite
lükek Francori lotzea
Lagüngo gabetarik
ezinezko dük leizea.

88

Deitü behar dütük oro
Gobernüaren izenean
Ez dük best (e) elkibiderik
egoera ahül hontan.

HAMAIKAGARREN JELKALDIA**Leizaola
83**

Berri txarra behar dizuet zorigaitzez jakinarazi:
desarmatu behar dela armada hel bezain sarri.

**Ordoki
84**

Frantzian gerla eginik, guduka bat irabazirik, ordari deusere ez dugu ukanen horien eskutik?

**Leizaola
85**

Ikustaterik ez dute
Frantzian eta munduan.
Amerikak utzi gaitu,
jarriz Francoren aldean.

**Ordoki
86**

Euskal Herriko mendian
prestik dira batailoiak.
Zer erran behar diegu,
horiek orotan hedatuak?

**Leizaola
87**

Buruaz beste egite
lukek Francori lotzea.
Lagungo gabetarik
ezinezko duk leizea.

88

Deitu behar dituk oro
Gobernuaren izenean.
Ez duk beste ilkibiderik
egoera ahul honetan.

gudaroste: armada

sarri: laster

guduka: gudu, bataila
ordari: ordain

ikustate: esker ona

lagungo: laguntza
gabetarik: gabe

ilkibide: irtenbide

HAMABIGARREN JELKALDIA

Gobernutik urruntzen da Monzon, erakustez bere ezadostasuna lehendakariari.

Monzon**89**

Agur Lehendakari jauna
atzoko gazte lagüna
Egün deiat aipatüko
ene gogoan düdana.

90

Enetako gobernüa
gaur dük sütondo xokoan
Eta eüskaldün jentea
etsaiaren üztarrian.

91

Eüskararen ikaskuntza
eta ondare güzia
Orai galtzen ari dira
Zinez ahalkegarria.

Agirre**92**

Eüskadiren altxatzeko
behar dük entelegatü
Eüropan demokrazia
nahi dügüla lantatü.

93

Audela Errepüblika
arrajinen dük Espainian
Enetako harekilan
egin behar diagü lan.

Monzon**94**

Enetako ez dük hola
behin ere salbatüko
Horrengatik hürrüntzen nü
Eüskadiren bermatzeko.

HAMABIGARREN JELKALDIA**Monzon****89**

Agur, lehendakari jauna,
atzoko gazte laguna.
Egun diat aipatuko
ene gogoan dudana.

90

Enetako gobernua
gaur duk sutondo zokoan.
Eta euskaldun jendea,
etsaiaren uztarrian.

91

Euskararen ikaskuntza
eta ondare guzia
orain galtzen ari dira.
Zinez ahalkegarria.

Agirre**92**

Euskadiren altxatzeko
behar duk entelegatu
Europan demokrazia
nahi dugula landatu.

93

Gainera Errepublika
arrajinen duk Espainian.
Enetako harekin
egin behar diagu lan.

Monzon**94**

Enetako ez duk hola
behin ere salbatuko.
Horrengatik urruntzen nauk
Euskadiren bermatzeko.

ahalkegarri: lotsagarri**entelegatu:** ulertu**arrajin:** itzuli

KANTA VI**Batasuna****f1**

Aupa gizona, jaiki mutil!
 Atzar emazte (e)ta neskatil!
 Borrokarako dei eginez
 Irrintzi bat dabil!
 Euskal Herria diagu zai,
 Presoak eta hilak ere bai!
 Abertzale izan ezkeru gaur,
 Gauden denok anai!
 Borrokari, luza zaidak eskua!
 Huna hemen nerea zabalik!
 Euskaldunok banan-banan hiltzea,
 Otso beltzak ez dik beste nahirik!
 Euskadiren alde
 loturik bagare,
 Goaz borrokara!
 Nagusituko bai gare!
 Gerokoak geroko utzi!
 Gaur Herriak ziok:
 Nahi diat bizi!

f2

Otso beltza gauaren gauaz heldu,
 Artzainak zebiltzala kalakan...
 Goizean goiz, odolez gorrituak
 Hamaika ardi hilak belarditan...
 Artzain kalakari,
 Atsoa diduri,
 Har makilak eskuan
 Eta lotu etsaiari!
 Anaien aurka ez habila!
 Otso beltzarentzat atxik makila!
 Agur agur! Ander(e) askatasuna!
 Agur agur biharko! Euskadi
 « Eguzkitan dantzatuko gaituzu »
 Errana diot maiteñoari!
 Besoak loturik,
 Ez dugu pestarik,
 Nola dantzatuko
 Biok belaunikaturik?
 Lehenik urratu katea,
 Gero libro izanen dantza egitea.

KANTA VI**Batasuna****f1**

Aupa gizona, jaiki mutil!
 Hatzar emazte eta neskatil!
 Borrokarako dei eginez
 irrintzi bat dabil!
 Euskal Herria diagu zain.
 Presoak eta hilak ere bai.
 Abertzale izanez gero gaur,
 gauden denok anaia!
 Borrokari luza iezaioke eskua.
 Hona hemen nirea zabalik.
 Euskaldunok banan-banan hiltzea,
 otso beltzak ez dik beste nahirik!
 Euskadiren alde
 loturik bagara,
 goazen borrokara,
 nagusituko baikara!
 Gerokoak geroko utzi.
 Gaur Herriak ziok:
 «Nahi diat bizi».

f2

Otso beltza gauaren gauaz heldu,
 artzainak zebiltzala kalakan.
 Goizean goiz odolez gorrituak
 hamaika ardi hilak belardietan.
 Artzain kalakari,
 atsoa dirudi.
 Har makilak eskuan
 eta lotu etsaiari!
 Anaien aurka ez habil!
 Otso beltzarentzat atxiki makila!
 Agur, agur, andere askatasuna!
 Agur, agur, biharko Euskadi!
 «Eguzkitan dantzatuko gaituzu»,
 errana diot maiteñoari.
 Besoak loturik,
 ez dugu festarik,
 Nola dantzatuko
 biok belaunikaturik?
 Lehenik, urratu katea.
 Gero, libro izanen dantza egitea.

hatzar: itzar hadi

libro: libre

HAMAHIRUGARREN JELKALDIA

Agirre lehendakaria hil da Parisen 1960ko martxoaren 22an. Jalgi Maria Josefa eta Telesforo. Kanpotik horra zaie Irala, lehendakariaren idazkari nausia.

Irala**95**

Berri gaixtoz horra nüzü
Agirre zentü ziküzü
Lehendakari berria
Leizaola dikezügü.

Monzon**96**

Gizona, harritzen naizü
nolaz ote da posible ?
Eri zenik ez dit entzün,
Azkarra züzün Agirre!

Irala**97**

Arrenkürek higatürük
gaizkitü da bihotzetik
Eta denbora gutiñiz
Baratü hatsa galdürük.

98

Haren azken nahia da
Donibanen pausatzea
Nola ikusten düzüe
ehortzeten plantatzea ?

Maria Josefa**99**

Elizalako bidean
etxe hau harena date
Eta jentetze güziak
heben bisita dezake.

Monzon**100**

Parropia (e)ta herriko
bürüzagi jaunekilan
Behar dena eginen dü
ohoreak üken ditzan.

Irala**101**

Zinez eskertzen zütüet
adiskide hoberenak
Politikaren gainetik
oro hartzen gütü penak.

HAMAHIRUGARREN JELKALDIA**Irala****95**

Berri gaixtoz horra naiz.
Agirre zendu zaigu.
Lehendakari berria
Leizaola dukegu.

Monzon**96**

Gizona, harritzen naiz.
Nolaz ote da posible?
Eri zenik ez dut entzun.
Azkarra zen Agirre.

Irala**97**

Arrangurek higaturik
gaizkitu da bihotzetik,
eta denbora gutiñiz
baratu hatsa galdurik.

98

Haren azken nahia da
Donibanen pausatzea.
Nola ikusten duzue
ehortzeten plantatzea?

Maria Josefa**99**

Elizarako bidean
etxe hau harena dateke,
eta jendetza guziak
hemen bisita dezake.

Monzon**100**

Parrokia eta herriko
buruzagi jaunekin
behar dena eginen dut
ohoreak ukan ditzan.

Irala**101**

Zinez eskertzen zaituztet,
adiskide hoberenak.
Politikaren gainetik
oro hartzen gaitu penak.

horra izan: etorri**dukegu:** izanen dugu**eri:** gaxorik
azkar: sendo**arrangura:** kezka
higatu: gastatu
gutiñiz: gutxitxoan
baratu: gelditu, egon**pausatu:** (betiereko)
atsedena hartu
ehortzeta: ileta
plantatu: prestatu**dateke:** izanen da, izango da

Jalgi gorpua, monsinore Mathieu Akizeko
apezpiku hazpandarra, apezak eta
aingeruak.

Mons. Mathieu

102

Egün joan zaikü beraz
heben borrokatü eta
Deitürrik Jinkoak bere
zelüetako alorreta(ra).

103

Eüskal Herriarentako
eman dü bere bizia
Horren gatik ere orai
üken dezala zelüa.

Aingeruak

104

Ezagütü düzü pena,
gerla eta franko neke
Zelüko Jinkoarekin
har ezazü otoi bake.

105

Zure bizia llabür zen
bena izan da betea
Bihar ikusiren düzü
zure lürra salbatüa.

Omenaldi bat dantzaz.

Mons. Mathieu

102

Egun joan zaigu, beraz,
hemen borrokatu eta
deiturik Jainkoak bere
zeruetako alorretara.

103

Euskal Herriarendako
eman du bere bizia.
Horrengatik ere orain
ukan dezala zerua.

Aingeruak

104

Ezagutu duzu pena,
gerla eta franko neke.
Zeruko Jainkoarekin
har ezazu, otoi, bake.

105

Zure bizia llabur zen
baina izan da betea.
Bihar ikusiko duzu
zure lurra salbatua.

HAMALAU GARREN JELKALDIA

Ikastaldia Garroko jauregian 1960ko abentuan, Jean Hiriart-Urruti apezak deiturik.

**Hirriart-Urruti apeza
106**

Egün gurekilan dügü
Telesforo Monzon jauna
Antzerkigile, poeta,
ihardesle ezagüna.

**Monzon
107**

Antzerkia, poesia
zoinen diren miragarri
Bizitzea hola beita
gabezia harrigarri.

**Henri
108**

Zure idazlana dügü
beti danik amiatü
Indar emaiten osoki
nahi nuke ohoratü.

**Maritxu
109**

Talentüz beterik zira
kantü ederren hontzeko
Gogo honez nüzü beti
prestik horier behatzeko.

**Joana
110**

Badakigü aberria
düzüla lehentazüna
Aipa izagüzü otoi
nola egin batarzüna.

**Monzon
111**

Aberria, batarzüna
Herriaren hontarzüna
Egün oroz behar üken
gogoan alkartzüna.

**Maite
112**

Iparraldean behar da
giro berri bat moldatü
Euskaldünak aküilatü
jentarte bai aldatü.

**Monzon
113**

Ikusten düt gazteria
kartsü dela heben ere
Plazer düt hola ikustez
geroko date fabore.

HAMALAU GARREN JELKALDIA**Hirriart-Urruti apeza
106**

Egun gurekin dugu
Telesforo Monzon jauna,
antzerkigile, poeta,
ihardesle ezaguna.

**Monzon
107**

Antzerkia, poesia
zeinen diren miragarri,
bizitzea hola baita
gabezia harrigarri.

**Henri
108**

Zure idazlana dugu
betidanik amiratu.
Indar ematen osoki,
nahi nuke ohoratu.

**Maritxu
109**

Talentuz beterik zara
kantu ederren ontzeko.
Gogo onez naiz beti
prestik horiei behatzeko.

**Joana
110**

Badakigu aberria
duzula lehentasuna.
Aipa iezaguzu, otoi,
nola egin batasuna.

**Monzon
111**

Aberria, batasuna
Herriaren ontasuna.
Egun oroz behar ukan
gogoan elkartasuna.

**Maite
112**

Iparraldean behar da
giro berri bat moldatu.
Euskaldunak akuilatu,
jendarte, bai, aldatu.

**Monzon
113**

Ikusten dut gazteria
kartsu dela hemen ere.
Plazer dut hola ikustez.
Geroko dateke fabore.

amiratu: miretsi

prestik: prest
behatu: entzun

jendarte: gizarte

dateke: izanen da

HAMABOSTGARREN JELKALDIA

ETAko elibatekin Kordelieren karrikan.

Iñaki**114**

Agur Telesforo jauna
ikusi düzü güdüka
Gük aldiz orai gorderik
egiten dügü borroka.

Andoni**115**

Ezinezko zapatzeaz
gira ahoak tapatürük
Orotan da polizia
armaz ere kargatürük.

Pantxika**116**

Ehünka düe zehatü
abertzale (e)ta langile
Demokraziarik gabe
diktatüra beita jabe.

Monzon**117**

Ikusten diat maleruski
zertan den gure Herria
Askatü behar da bihar
horrez gure aberria.

Xabier**118**

Hanitz lagun badirade
heben presontegietan
Oinazkatürük gogorki
egartezin gogoetan.

119

Bortizkeria dateke
bihar gure epaikari
Libertatearen alde
etsaia dezagün bahi.

HAMABOSTGARREN JELKALDIA**Iñaki****114**

Agur, Telesforo jauna;
ikusi duzu guduka.
Guk, aldiz, orain gorderik
egiten dugu borroka.

Andoni**115**

Ezinezko zapatzeaz
gara ahoak tapaturik.
Orotan da polizia
armaz ere kargaturik.

Pantxika**116**

Ehunka dute zehatu,
abertzale eta langile,
demokraziarik gabe
diktatura baita jabe.

Monzon**117**

Ikusten diat maluruski
zertan den gure Herria.
Askatu behar da bihar
horrez gure aberria.

Xabier**118**

Anitz lagun badirade
hemen presondegietan
oinazkaturik gogorki,
egartezin gogoetan.

119

Bortizkeria dateke
bihar gure epaikari.
Libertatearen alde
etsaia dezagun bahi.

guduka: gudu, bataila**zapatu:** zanpatu**zehatu:** jipoitu**maluruski:** zoritxarrez**oinazkatu:** oinaze eman
egartezin: higaezin, ahulezin**dateke:** izanen da
epaikari: epaile

KANTA VII Itziarren semea

g1

Itziar-en semeak
Ez du laguna salatzen...
Eta zakurren aurrean,
Tinko ta isilik egoiten.

g2

Itziar-en semea; hori duk mutila!
Nihor salatu baino nahiago du hila...
Harro egon litake Maddi neskatila,
Ezpetxetik jali (e)ta joanen zaio bila!
Maddi neskatila, hori dun mutila!
Nihor salatu baino nahiago du hila!
« Haurra, zer egin haute holan agertzeko?
Ama, jo egin naute mintza arazteko!
Izenik eman al duk? Esantzak egia!
Ez ama, ez dut eman! Jalgi naiz garbia!
Jalgi haiz garbia?
Baí ama, egia! »
(E)ta amak eskaini zion klabelin gorria...

g3

Zazpi gizon nituen joka inguruan...
Makilaz hartu naute ostikoz lurrean...
Baina nik ez dut eman lagunen izenik!
(E)ta hantxen gelditu dira fitsik jakin barik!
Lagunen izenik ez baitut eman nik...
(E)ta hantxen gelditu dira fitsik jakin barik!

g4

Lau aldiz sartu naute urean burua...
Zangotik euki naute zintzilikatua...
Baina nik ez dut eman lagunen izenik!
(E)ta hantxe gelditu dira fitsik jakin barik!
Zangotik zintzilik, ni beti isilik!
(E)ta hantxen gelditu dira fitsik jakin barik!

g5

Izerdia (e)ta odola burutik behera...
Ezpainak urratu (e)ta azazkalak atera...
Baina nik ez dut eman lagunen izenik,
Ta hantxen gelditu dira fitsik jakin barik!
Odolez beterik, ni beti isilik!
(E)ta hantxen gelditu dira fitsik jakin barik!

g6

Itziar-en semeak
Ez du laguna salatzen...
Eta zakurren aurrean,
Tinko (e)ta isilik egoiten...
Ezpetxerat igorri dute,
Amak ez du ezagutu...
(E)ta maddik, polliki polliki,
Eman diozka bi musu...

KANTA VII Itziarren semea

g1

Itziarren semeak
ez du laguna salatzen.
Eta zakurren aurrean,
tinko eta isilik egoten.

g2

Itziarren semea, hori duk mutila!
Nehor salatu baino nahiago du hila.
Harro egon liteke Maddi neskatila,
espetxetik jalgita joanen zaio bila!
Maddi neskatila, hori dun mutila!
Nehor salatu baino nahiago du hila!
Haurra, zer egin diaute hola agertzeko?
—Ama, jo egin naute mintzarazteko.
Izenik eman al duk? Esan ezak egia!
—Ez, ama, ez dut eman. Jalgi naiz garbia.
Jalgi haiz garbia?
—Bai, ama, egia!
Eta amak eskaini zion krabelin gorria.

g3

Zazpi gizon nituen joka inguruan.
Makilaz hartu naute ostikoz lurrean.
Baina nik ez dut eman lagunen izenik,
eta hantxe gelditu dira fitsik jakin barik.
Lagunen izenik ez baitut eman nik.
Eta hantxe gelditu dira fitsik jakin barik!

g4

Lau aldiz sartu didate urean burua.
Zangotik eduki naute zintzilikatua.
Baina nik ez dut eman lagunen izenik,
eta hantxe gelditu dira fitsik jakin barik.
Zangotik zintzilik, ni beti isilik!
Eta hantxe gelditu dira fitsik jakin barik!

g5

Izerdia eta odola burutik behera.
Ezpainak urratu eta azazkalak atera.
Baina nik ez dut eman lagunen izenik,
eta hantxe gelditu dira fitsik jakin barik.
Odolez beterik, ni beti isilik!
Eta hantxe gelditu dira fitsik jakin barik!

g6

Itziarren semeak
ez du laguna salatzen.
Eta zakurren aurrean,
tinko eta isilik egoten.
Ezpetxerat igorri dute.
Amak ez du ezagutu.
Eta Maddik, polliki-polliki,
eman dizkio bi musu.

jalgi: irten

HAMASEIGARREN JELKALDIA

Anai Artea elkarteak eraikitzen da 1969. urtean iheslariei heldura egiteko.

**Monzon
120**

Bada hanitx borrokari
hegoaldean bilatūrik
Behar dūgū zerbait egin
balin bada batarzūnik.

121

Alkarte bat sor dezagūn
iheslarien hartzeko
Lana eta segurantxa
horier heben eskentzeko.

Aita Larzabal**122**

Etxalte bat ikusten dūt
Donibane Lohizūnen
Holaz hegatz bat dūkegū
Orai danik behardūnen.

Aita Arregi**123**

Ni bezala lagūn franko
badira ihes joanik
Emanen deikūe orai
lagūngoia bihotzetik.

Fagoaga**124**

Nik ere parte hartzen dūt
alkartearen lanetan
Bedeziaren beharra
beitate zorigaitzetan.

HAMASEIGARREN JELKALDIA**Monzon
120**

Bada anitz borrokari
hegoaldean bilaturik.
Behar dugu zerbait egin,
baldin bada batasunik.

121

Elkarte bat sor dezagun
iheslarien hartzeko.
Lana eta segurantxa
horiei hemen eskaintzeko.

Aita Larzabal**122**

Etxalde bat ikusten dut
Donibane Lohizunen.
Holaz hegatz bat dukegu
oraindanik behardunen.

Aita Arregi**123**

Ni bezala, lagun franko
badira ihes joanik.
Emanen digute orain
lagungoia bihotzetik.

Fagoaga**124**

Nik ere parte hartzen dut
elkartearen lanetan,
bedeziaren beharra
baitateke zorigaitzetan.

heldura: laguntza

hegatz: teilatu
dukegu: izango dugu
behardunen: behardunentzat

lagungo: laguntza

bedezi: mediku, sendagile
dateke: izango da

HAMAZAZPIGARREN JELKALDIA

Burgoseko auzia 16 euskaldunendako 1970eko abenduan. Ber denboran Donostiako aleman kontsula ETAk hartzen du.

Etxabe**125**

Bihar bertan den auziaz erran behar da berria ETAk harturik dela Donostiako Beilh kontsula.

126

Burgoseko adiskideen zortea ikusi eta Haren bizia dateke euskaldunen bermegoa.

Aita Larzabal**127**

Behar dugu arrunt erran elkarrizketa egitez Münduko berrikarier alkartearen hots bidez.

Monzon**128**

Banoazü erraitera hel ditean guregana Aipa dezegün halaber presoneren izatea.

Hirurak badoaz kanpora.

Franco**129**

Manzanas eho düzüe terroristak beitzidie Holako tzarkeriekin hiltzea merexi düzüe.

130

Euskaldün abertzalegoa Erauzle baizik ez baita Münduari behar dugu erakutsi eztabada.

Auzitegiko presidentea**131**

Audela Iruñan ere sartü dira presontegi(a)n Esküak armaz beterik zer behar da horier egin?

Izko**132**

Ez gira gü ehaileak nahi gñüan libratü Arantxa gure lagüna hau beitzünüen zerratü.

HAMAZAZPIGARREN JELKALDIA**Etxabe****125**

Bihar bertan den auziaz erran behar da berria: ETAk harturik dela Donostiako Beilh kontsula.

126

Burgoseko adiskideen zortea ikusi, eta haren bizia dateke euskaldunen bermegoa.

Aita Larzabal**127**

Behar diegu arrunt erran elkarrizketa egitez munduko berrikarier alkartearen hots bidez.

Monzon**128**

Banoa erraitera hel daitezen guregana. Aipa diezaiegun, halaber, presoneren izatea.

Franco**129**

Manzanas ero duzue, terroristak baitzarete. Holako tzarkeriekin hiltzea merezi duzue.

130

Euskaldun abertzalegoa erauzle baizik ez baita, munduari behar diogu erakutsi eztabada.

Auzitegiko presidentea**131**

Gainera Iruñean ere sartu dira presondegian eskuak armaz beterik. Zer behar zaie horiei egin?

Izko**132**

Ez gara gu eraileak. Nahi genuen libratu Arantxa gure laguna, han baitzenuten zerratu.

dateke: izango da
bermego: garantia

arrunt: berehala

berrikari: berriemaile

presoner: preso

ero: hil, erail

tzarkeria: gaiztakeria

erauzle: iraultzaile

eraile: hiltzaile

Auzitegiko presidentea**133**

Isilik egon ziteie
nahastiar ezinagoak
Zer da züen helbürüa
eüskaldünbürü beroak.

Onaindia**134**

Nahi dügü Eüskadi bat
sozialista eta libro...

Auzitegiko presidentea**135**

Ago isilik ertzoa
armak eraiki armada...

Onaindia**136**

Gora Espainiako langileak
Gora Euskadi Askatuta...

Presonerek kanta.

h1

Eusko gudariak gera
Euskadi askatzeko
Gerturik daukagu odola
Bere aldez emateko.
Irrintzi bat entzun da
Mendi tontorrean:
Goazen gudari danok
Ikurriñen atzean!

Kanpo eramaten dituzte guarda zibilek
euskaldun presonerak.

Auzitegiko presidentea**137**

Bederatzü ehaiteko
besteak aldiz presoner
Azkenekoz hori dükegü
eskentzeko eüskaldüner.

Franco**138**

Kontsüla libratü düe
mündüa zaikü mintzatü
Presoner ditiat üzten
hori diat egün finkatü.

Auzitegiko presidentea**133**

Isilik egon zaitezte,
nahastari ezinagoak
Zer da zuen helburua,
euskaldun buruberoak?

Onaindia**134**

Nahi dugu Euskadi bat
sozialista eta libro.

Auzitegiko presidentea**135**

Hago isilik, ertzoa.
Armak eraiki armada.

Onaindia**136**

Gora Espainiako langileak!
Gora Euskadi Askatuta!

h1

Eusko gudariak gara,
Euskadi askatzeko.
Gerturik daukagu odola
bere aldez emateko.
Irrintzi bat entzun da
mendi tontorrean.
Goazen gudari denok
ikurrinen atzean!

Auzitegiko presidentea**137**

Bederatzi eraiteko.
Besteak, aldiz, presoner.
Azkenekoz hori dukegu
eskaintzeko euskaldunei.

Franco**138**

Kontsula libratu dute.
Mundua zaigu mintzatu.
Presoner ditiat uzten.
Hori diat egün finkatu.

nahastari: nahasle**libro:** libre, aske**ertzo:** zoro, ero**ero:** hil, erail**dukegu:** izango dugu

KANTA VIII Lepoan hartu

i1
Lepoan hartu (e)ta segi aurrera,
Lepoan hartu (e)ta segi aurrera.

i2
Gazte bat lurrean aurkitu dugu
Lore gorritz beterik kolkoa
Burdinen artetik ihesi dator
Euskal gazteriaren oihua.
Mutilak, eskuak elkar gurutza
Ekin (e)ta bultza denak batera,
Bidean anaia erortzen bazaik
Lepoan hartu (e)ta segi aurrera!
La-la-ra...

i3
Ez dugu beldurrik, ez dugu lotsarik
Nor geran, zer geran aitortzeko.
Ez gaituk lapurrak, ez eta zakurrak
Kataiaz loturik ibiltzeko
Gizonak bagera jo zangun aurrera,
Gure Herriaren jabe egin arte,
Askatasunaren hegal azpian
Kabia egiten ohituak gare,
Ibiltzen aspaldi ikasia dugu
Otsoak eskutik hartu gabe.
La-la-ra...

i4
Arrotzek ezpataz hil nahi banaute
Izituko gaituztelakoan.
Zutitu (e)ta euskeraz mintzatuko naiz
Nere hiltzailearen aurrean.
Mutilak, ez gero nigarrrik egin
Erortzen banaiz gau ilunean.
Izar berri bat piztutzero noa
Euskal Herriko zero gainean...

KANTA VIII Lepoan hartu

i1
Lepoan hartu eta segi aurrera.
Lepoan hartu eta segi aurrera.

i2
Gazte bat lurrean aurkitu dugu,
lore gorritz beterik kolkoa.
Burdinen artetik ihesi dator
euskal gazteriaren oihua.
Mutilak, eskuak elkar gurutza,
ekin eta bultza denak batera.
Bidean anaia erortzen bazaik,
lepoan hartu eta segi aurrera!
La-la-ra...

i3
Ez dugu beldurrik, ez dugu lotsarik
nor garen, zer garen aitortzeko.
Ez gaituk lapurrak, ez eta zakurrak,
katez loturik ibiltzeko.
Gizonak bagara, jo dezagun aurrera
gure Herriaren jabe egin arte.
Askatasunaren hegal azpian
habia egiten ohituak gara.
Ibiltzen aspaldi ikasia dugu,
otsoak eskutik hartu gabe.
La-la-ra...

i4
Arrotzek ezpataz hil nahi banaute,
izutuko gaituztelakoan,
zutitu eta euskeraz mintzatuko naiz
nire hiltzailearen aurrean.
Mutilak, ez gero negarrik egin
erortzen banaiz gau ilunean.
Izar berri bat piztera noa
Euskal Herriko zero gainean.

HAMAZORTZIGARREN JELKALDIA

Gose greba Baionako katedralean 1971ko maiatzean. Frantziako Gobernuak kanporatzen ditu iheslariak.

**Txillardegi
139**

Administrazioak ez dū
iheslarier onartzen
Lanean heben aritzea
zer egin behar da horien?

140

Gaineala gütüe nahi
kanporatū zerentako
Uste nüan demokrazia
bazela ororentako.

Monzon

141
Gaüza horien salatze
egin dezagün Baionan
Gose opor bat oroek
katedralaren erditan.

Mons. Vincent gose-grebalariei mintzatzen
zaie.

**Mons. Vincent
142**

Horra nüzü jakitera
zerentako katedralean
Zidien egün jüntatū
nork nahi dū zerbait erran?

Monzon

143
Heben gira erraiteko
nahi girela bizitū
Eüskal Herriko lürretan
beikütüe debekatū.

**Mgr Vincent
144**

Ezarten düzüe segur
zatikatze baita beste
Galtegiten dereizüet
hebertik kanpo zoazte.

Monzon

145
Zure maitarzün eleak
hola balin badirade
Gure lürretik kanporat
bortxaka joanen girade.

**Mons. Vincent
146**

Aski badüt gaüza horiez
Audela züen entzütüz
Ikus dezazüen arren
egoitea hobe denez?

HAMAZORTZIGARREN JELKALDIA**Txillardegi
139**

Administrazioak ez die
iheslariei onartzen
lanean hemen aritzea.
Zer egin behar da horien?

140

Gainera gaituzte nahi
kanporatu. Zerendako?
Uste nuen demokrazia
bazela ororendako.

Monzon

141
Gauza horien salatze
egin dezagun Baionan
gose-opor bat orok
katedralaren erdian.

**Mons. Vincent
142**

Horra naiz jakitera
zerendako katedralean
zareten egun juntatu.
Nork nahi du zerbait erran?

Monzon

143
Hemen gara errateko
nahi garela bizitu
Euskal Herriko lurretan,
baitigute debekatu.

**Mgr Vincent
144**

Ezartzen duzue segur
zatikatze; baita beste.
Galdegiten dizuet:
hemendik kanpo zoazte.

Monzon

145
Zure maitasun-eleak
hola baldin badira,
gure lurretik kanporat
bortxaka joanen gara.

**Mons. Vincent
146**

Aski badut gauza horiez,
gainera zuen entzutez.
Ikus ezazue, arren,
egotea hobe denez.

horien: horien alde

zerendako: zergatik

gose-opor: gose-greba

horra izan: etorri
zerendako: zergatik

bizitu: bizi izan

galdegin: eskatu

arren: beraz

Mons. Vincent joaten da. Jalgi prefeta,
igorriarik frantses hedexuriak.

Komandantea

147

Legea dezagün sararaz
bühürtzen diren oroer
Bürümakila eskentzez
euskaldün kasko gogorrer.

Prefeta

148

Txillardegi eta Monzon
Gers departamentüalat
Eraman beharko dira
horik beitira nahasleak.

Komandantea

147

Legea diezaiegun sarraraz
bihurtzen diren orori,
burumakila eskaintzez
euskaldun kaskagogorrei.

Prefeta

148

Txillardegi eta Monzon
Gers departamendurat
eraman beharko dira,
horiek baitira nahasleak.

hedexuri: jendarme

bihurtu: aurre egin

burumakila: garrote

kaskagogor: burugogor

HEMERETZIGARREN JELKALDIA

Algortan hiltzen da Mendizabal "Txikia" guduka batean 1973ko apirilaren 19an. Madrilen hiltzen da Carrero Blanco 1973ko abenduaren 20an; ETAk jauzarazten du bonba batez.

**Carrero Blanco
149**

Arrunt eho behar dira
holako asegarriak
Bakearen ükeiteko
goatzen hola Frankistekak.

150

Gora Espainia bakuna
zeha Eüskadi libroa
Zapa dezagün eüskara
eta eüskaldün gogoak.

Jalgi ETako gazte zenbait. Guduka.
Bonbaz hiltzen da Carrero Blanco.

**Argala
151**

Hau zen Francoren lagüna
haren gogozko semea
Segi dezagün borroka
beitükie ahülezia.

152

Behar dügü populüa
gurekilan azkarkiago
Hel gitean бүрүtzera
Eüskadiren askatzeko.

153

Marxismo-Leninismoa
beharko gure geroa
Ez beita esküintiarretarik
kanbiatüren giroa.

HEMERETZIGARREN JELKALDIA**Carrero Blanco
149**

Arrunt ero behar dira
holako asegarriak.
Bakearen ukaiteko
goazen hola frankistak.

150

Gora Espainia bakuna!
Zeha Euskadi libroa!
Zapa dezagun euskara,
eta euskaldun gogoak.

**Argala
151**

Hau zen Francoren laguna,
haren gogozko semea.
Segi dezagun borroka,
baitukete ahulezia.

152

Behar dugu populua
gurekin azkarkiago.
Hel gaitezen burutzera
Euskadiren askatzeko.

153

Marxismo-leninismoa
beharko gure geroa,
ez baita eskuindarretarik
kanbiatuko giroa.

arrunt: berehala
ero: hil, erail
asegarri: nekarazle

zehatu: jipoitu, zigortu
libro: libre, aske
zapatu: zanutu

dukete: izango dute

azkarki: sendoki

KANTA IX**Txikia****j1**

Txikia zuen guda izena
 Bera gizon osoa izan arren
 Mendizabal, Sasetaren urrena
 Biak txiki, bizkor eta lerdin
 Saseta hil zen gudarien aurrean
 Mendizabal hil zaigu bakarrik
 Baina biok daukate Herri osoa
 Atzo (e)ta gaur heuren atzetik
 Euskadirentzat hil dire-ta
 Gorputzak arantzaz beterik.
 Harro hadi Kantauri itxasoa
 Ta heien betiko loa
 Betiko kanta zak,
 Geroari esaiok olatuetan
 Herri-izarrak ez direla itzaltzen
 Gure hurrek biharko ikastoletan
 Heien izenak abestu ditzaten
 Arantzetan biak hil baitziren.

j2

Harro hadi Kantauri itxasoa
 (E)ta heien betiko loa
 Betiko kanta zak,
 Geroari esaiok olatuetan
 Herri-izarrak ez direla itzaltzen
 Gure hurrek biharko ikastoletan
 Heien izenak abestu ditzaten,
 Herriarentzat biak hil baitziren.

KANTA IX**Txikia****j1**

Txikia zuen guda-izena,
 bera gizon osoa izan arren.
 Mendizabal, Sasetaren hurrena,
 biak txiki, bizkor eta lerdin.
 Saseta hil zen gudarien aurrean.
 Mendizabal hil zaigu bakarrik.
 Baina biok daukate Herri osoa
 atzo eta gaur euren atzetik,
 Euskadirentzat hil dira-eta
 gorputzak arantzaz beterik.
 Harro hadi, Kantauri itsasoa,
 eta haien betiko loa.
 Betiko kanta ezak.
 Geroari esaiok olatuetan
 herri-izarrak ez direla itzaltzen,
 gure hurrek biharko ikastoletan
 haien izenak abestu ditzaten,
 arantzetan biak hil baitziren.

j2

Harro hadi. Kantauri itsasoa,
 eta haien betiko loa.
 Betiko kanta ezak.
 Geroari esaiok olatuetan
 herri-izarrak ez direla itzaltzen,
 gure hurrek biharko ikastoletan
 haien izenak abestu ditzaten,
 Herriarentzat biak hil baitziren.

HOGEGARREN JELKALDIA

Franco hilik, 1975eko azaroaren 20an.

Doña Lehu**154**

Franco hil da maleruski
hartu behar da segida
Euskaldunen zapatzeko
gorets dezagun armada.

Doña Gazi**155**

Aldakatü nahi dügü
güdü ideologia
Gora Espainia bardina
eta haren monarkia.

Doña Pertika**156**

Erabili beharko da
oroetan castellanoa
Horrek beitu ezarriko
izate bat hobeagoa.

Doña Sarde**157**

Frantzian bürüzagiak
gurekilan dira bertan
Erauzleen ezarteko
Zerrategien barnean.

Doña Piper**158**

Goatzen bertan bozkatzera
euskaldunen tapatzera
Mündüaren aitzinean
orai pezü egitera.

Doña Lozebiña**159**

Gero ixilka dezagun
horier kuntre heda herra
Ez dezen sekulan ikus
plomatürrik egoera.

HOGEGARREN JELKALDIA**Doña Lehu****154**

Franco hil da maluruski;
hartu behar da segida.
Euskaldunen zapatzeko
gorets dezagun armada.

Doña Gazi**155**

Aldakatu nahi dugu
gudu-ideologia.
Gora Espainia berdina,
eta haren monarkia!

Doña Pertika**156**

Erabili beharko da
orotan gaztelania,
horrek baitu ezarriko
izate bat hobeagoa.

Doña Sarde**157**

Frantzian buruzagiak
gurekin dira bertan,
erauzleen ezartzeko
zerrategien barnean.

Doña Piper**158**

Goazen bertan bozkatzera,
euskaldunen tapatzera,
munduaren aitzinean
orain pezu egitera.

Doña Lozebiña**159**

Gero isilka dezagun
horiei kontra heda herra,
ez dezauden sekulan ikus
plomatürrik egoera.

maluruski: zoritxarrez**zapatu:** zanpatu**aldakatu:** aldatu**bertan:** bat-batean**erauzle:** iraultzaile**zerrategi:** esparru**bertan:** berehala**pezu:** pisu**herra:** gorroto**plomatu:** orekatu

HOGUITABATGARREN JELKALDIA

Hegoaldera deiturik dira Maria Josefa eta Telesforo.

**Elkoro
160**

Franco tirano zaharra
hil ziküzün azkenean
Ordü da berriz Eüskadi
sar dadin askatarzünean.

161

Indenpendentzia piztū
dinamika bat abiatū
Behar lizate gureztat
norbait herri(a)n abokatū.

Maria Josefa**162**

Egünkari zombaitetan
ikusü düt pizten dela
Orain zerbait igidüra
gertakizün bat badela ?

Emaztea**163**

Horren gatik horra ginen
züer galto egitera
Beharrezko lizateke
gurekilan etortzea.

Monzon**164**

Asmüa düt aspaldian
abertzale mündüaren
Biltzea denek hartzeko
Bozketan sail geroaren.

165

Goatzen beraz algarrekin
aihari baten egitera
Bergarako etxeala
gauza horien aipatzera.

Laurak itzul elkarrekin.

HOGUITABATGARREN JELKALDIA**Elkoro
160**

Franco tirano zaharra
hil zitzaigun azkenean.
Ordu da berriz Euskadi
sar dadin askatasunean.

161

Indenpendentzia piztu,
dinamika bat abiatu.
Behar litzateke gureztat
norbait herrian abokatu.

Maria Josefa**162**

Egunkari zenbaitetan
ikusü dut pizten dela
orain zerbait higidura,
gertakizun bat badela.

Emaztea**163**

Horrengatik horra ginen
zuei galto egitera.
Beharrezko litzateke
gurekin etortzea.

Monzon**164**

Asmoa dut aspaldian
abertzale munduaren
biltzea, denek hartzeko
bozketan sail geroaren.

165

Goazen, beraz, elkarrekin
afari baten egitera
Bergarako etxera,
gauza horien aipatzera.

higidura: mugimendu

horra izan: etorri
galto egin: galdegin, eskatu

sail: lan, eginkizun
geroaren: geroaren alde

HOGUITABIGAGARREN JELKALDIA

Monzon berriz diputatu. Herri Eguna
1977ko urriaren 28an Arazuri zelaian.

**Xabier
166**

Berriz depütatügoala
haütatü zütü herriak
Monzonen behar handia
Beitü beti aberriak.

167

Indenpendentziarentzat
egin dezagün ibilte
Eüskal Herriko bideetan
Arazuri zelai arte.

**Mikele
168**

Apala adiskidea
nahi dü kanpo igorri
Frantziako poliziak
ez da behar gaüza hori.

169

Hortako nahi gүнüke
züen bien lagüngo
Hel gitean ehün mila
bidetarik bilgiala.

**Monzon
170**

Gogoa bero düzüe
hori dügü preziatü
Eüskal Herriarentako
behar dügü borrokatu.

171

Kantore bat hontüko dü
gaur ützüliarentako
Altxa dezagün mündüa
denek Eüskadirentako.

Oro joaten dira. Jalgi kanpotik Monzon eta
lagun zenbait, ihes joanik zirenak.

k1

Euskal Herria jaiki hadi
(e)ta eman hadi bidean
Erreka ondoan jarriko haiz
argi hastea sortzean.

k2

Ibil (e)ta ibiliz ibilian
Aurkitzen baduk askatasuna
Esango diok gure herria
Bidez bide bere bila dabila.

HOGUITABIGAGARREN JELKALDIA**Xabier
166**

Berriz diputatugora
hautatu zaitu herriak,
Monzonen behar handia
baitu beti Aberriak.

167

Indenpendentziarentzat
egin dezagun ibiltze,
Euskal Herriko bideetan
Arazuri zelai arte.

**Mikele
168**

Apala adiskidea
nahi du kanpo igorri
Frantziako Poliziak.
Ez da behar gauza hori.

169

Horretako nahi gunuke
zuen bien lagungoa,
hel gaitezen ehun mila
bidetarik bilgilara.

**Monzon
170**

Gogoa bero duzue;
hori dugu preziatu.
Euskal Herriarendako
behar dugu borrokatu.

171

Kantore bat onduko dut
gaur itzuliarendako.
Altxa dezagun mundua
denek Euskadirentako.

k1

Euskal Herria, jeiki hadi
eta eman hadi bidean.
Erreka ondoan jarriko haiz
argi-hastea sortzean.

k2

Ibil eta ibiliz ibilian
aurkitzen baduk Askatasuna,
esango diok gure herria
bidez bide bere bila dabilela.

lagungo: laguntza

bilgia: biltoki

kantore: abesti

argi-haste: egunsenti

Monzon**172**

Altxa dezagün Eüskadi
zazpi probintzietarik
Esküetan ikurriña
aitzinean airatürrik.

173

Indenpendentzia date
gure dagün hitzordüa
Aski zapatze, tiroka
gora Eüskadi berria.

Makilak altxatzen dituzte orok, erratez:
«independentzia», «independentzia». Jalgi
guarda zibilak. Jendea moldegaizki
barreiatzen dute. Monzon atxilotzen dute.

Monzon**172**

Altxa dezagun Euskadi
zazpi probintzietarik,
eskuetan ikurrina
aitzinean airaturik.

173

Indenpendentzia dateke
gure daugin hitzordua.
Aski zapatze, tiroka...
Gora Euskadi berria!

airatu: altxatu, aireratu

dateke: izanen da, izango da

daugin: datorren, hurrengo

zapatu: zanpatu

HOGETAHIRUGARREN JELKALDIA

Populua biltzen da, Elkoro buru.
Manifestaldia. Monzon libratu behar dute
guarda zibilek.

**Elkoro
174**

Ez da demokraziarik
heben ordüan ahalgarri ?
Presontegiak beterik
hori zaikü asegarri.

175
Altxa berriz oroek botzak
askatzeko güdariak
Zehatürik beitrade
sala holako gaizkiak.

**Maria Josefa
176**

Badakigü armadarrak
herra düala guretako
Oro baliatzen dütü
güdarien ehaiteko.

177
Adin hortan düten senarra
berriz ere zerratürik
Bihotzetik akitüa
heltüko zaikü zentürik.

178
Ütziko düenez arren
enekilan etortzera
Güdaldeitze honekilan
banoazü jakitera.

Monzon libratu da. Herri Batasunak
antolaturiko mitin batean parte hartzen du
Gazteizen.

**Monzon
179**

Hitz indar hitz erraiteko
abertzale mündüari
Altxa dezagün Eüskadi
beti borrokan güdari.

180
Zumalakarregi zer zen ?
Santa Cruz, Agirrek zer züen ?
Orai bardin da gazteen
Eüskadi da eüskaldünen.

181
Argala, Etxebarrieta
eüskaldün zerbütariak
Olhagaray, Mendizabal,
denak ziren güdariak.

HOGETAHIRUGARREN JELKALDIA**Elkoro
174**

Ez da demokraziarik
hemen. Orduan ahalgarri?
Presondegiak beterik,
hori zaigu asegarri.

175
Altxa berriz orok botzak,
askatzeko güdariak,
zehaturik baitirade.
Sala holako gaizkiak.

**Maria Josefa
176**

Badakigu armadak
herra duela guretako.
Oro baliatzen ditu
güdarien eraiteko.

177
Adin horretan dut senarra
berriz ere zerraturik.
Bihotzetik akitua,
helduko zaigu zendurik.

178
Utziko dionetz, arren,
enekin etortzera,
güdaldeitze honekin
banoa jakitera.

**Monzon
179**

Hitz indar, hitz erraiteko
abertzale munduari:
altxa dezagun Euskadi
beti borrokan, güdari.

180
Zumalakarregi zer zen?
Santa Cruz, Agirrek zer zuten?
Orain bardin da gazteen.
Euskadi da euskaldunen.

181
Argala, Etxebarrieta,
euskaldun zerbitzariak.
Olhagarai, Mendizabal,
denak ziren güdariak.

ahalgarri: posible**asegarri:** nekarazgarri**zehatu:** jipoitu, zigortu**herra:** gorroto**ero:** hil, erail**zerratu:** itxi
akitu: nekatu**arren:** beraz**güdaldeitze:** eskabide**gazteen:** gazteentzat
euskaldunen:
euskaldunentzat

Oro joaten dira kantatzez.

I1
Eusko gudariak gera
Euskadi askatzeko
Gerturik daukagu odola
Bere aldez emateko.
Irrintzi bat entzun da
Mendi tontorrean:
Goazen gudari danok
Ikurriñen atzean!

I1
Eusko gudariak gara
Euskadi askatzeko.
Gerturik daukagu odola
bere aldez emateko.
Irrintzi bat entzun da
mendi tontorrean.
Goazen gudari denok
ikurrinen atzean!

KANTA X Irabazi dugu

m1

Irabazi, irabazi dugu, odolez (e)ta malkoz irabazi dugu.

Irabazi, irabazi dugu, burdinen atzetik irabazi dugu.

Hi, Gudari, Herriko zaindari, Gernikako sua begietan argi...

Hau loria, Burgosko auzia, ezpatari nausitu zaio Herria.

m2

Ekin, ez etzan lotara, bideari ekin.

Dator, odoletan dator argi-hastea

Mugarik gabeko ludi zabal bat dugu nahi.

Armadak suntsitu, urrea be bai,

Askatasuna dugu nahi.

Euskadi berri bat dago gure zain.

m3

Irabazi, irabazi dugu, odolez (e)ta malkoz irabazi dugu.

Irabazi, irabazi dugu, burdinen atzetik irabazi dugu.

Hi, Gudari, Herriko zaindari, Gernikako sua begietan argi...

Hau loria, Burgosko auzia, ezpatari nausitu zaio Herria.

m4

Bultza, bidean ez jarri, izerditan bultza,

Bultza, eskuak, odoltuz bultza (e)ta bultza.

Gure lurrazpitik hilek irabazi dute.

Txakurtegietan, oinazetan

Deiadarka dabiltzatenok

Aberri gazte bat sortu digute.

m5

Irabazi, irabazi dugu, odolez (e)ta malkoz irabazi dugu.

Irabazi, irabazi dugu, burdinen atzetik irabazi dugu.

Hi, Gudari, Herriko zaindari, Gernikako sua begietan argi...

Hau loria, Burgosko auzia, ezpatari nausitu zaio Herria.

KANTA X Irabazi dugu

m1

Irabazi, irabazi dugu, odolez eta malkoz irabazi dugu.

Irabazi, irabazi dugu, burdinen atzetik irabazi dugu.

Hi, gudari, Herriko zaindari, Gernikako sua begietan argi.

Hau loria, Burgosko auzia, ezpatari nagusitu zaio Herria.

m2

Ekin, ez etzan lotara, bideari ekin.

Dator, odoletan dator argi-hastea

Mugarik gabeko ludi zabal bat dugu nahi.

Armadak suntsitu, urrea ere bai.

Askatasuna dugu nahi.

Euskadi berri bat dago gure zain.

m3

Irabazi, irabazi dugu, odolez eta malkoz irabazi dugu.

Irabazi, irabazi dugu, burdinen atzetik irabazi dugu.

Hi, gudari, Herriko zaindari, Gernikako sua begietan argi.

Hau loria, Burgosko auzia, ezpatari nagusitu zaio Herria.

m4

Bultza, bidean ez jarri, izerditan bultza.

Bultza, eskuak odolduz, bultza eta bultza.

Gure lur azpitik hilek irabazi dute.

Txakurtegietan, oinazetan

deiadarka dabiltzatenok

aberri gazte bat sortu digute.

m5

Irabazi, irabazi dugu, odolez eta malkoz irabazi dugu.

Irabazi, irabazi dugu, burdinen atzetik irabazi dugu.

Hi, gudari, Herriko zaindari, Gernikako sua begietan argi.

Hau loria, Burgosko auzia, ezpatari nagusitu zaio Herria.

argi-haste: egunsenti
ludi: mundu

loria: aintza, ospe

HOGEITALAUGARREN JELKALDIA

Baionako ospitalean hiltzen da Monzon,
1981eko martxoaren 9an.

**Erizaina
182**

Ez otoi lüzaz ingana
egün dügü akitürük
Barda lo güti eginik
badate beste aldirik!

**Isidro
183**

Popülüak aldi hontan
zinez zure dü bozkatü
Herri Batasunarekin
zira berriz depütatü.

**Monzon
184**

Lotü nüzü borrokari
nahi benüan aldatü
Giro berri bat ezari
Eüskal Herria jüntatü.

185

Egün ütziaren zütüet
gaüza hanitx egiteko
Jinkoak hartü nai bere
alorraren ikusteko.

**Maria Josefa
186**

Pena egiten deitazüt
hola mintzatzez senarra.
Ez besoak apal otoi
beitügü zure beharra.

**Monzon
187**

Adio ene lagüna
banoazü ordezkari
Jinkoaren ikustera
etxikirik Herriari.

Azken otoitza kantatzen du Monzonek.

HOGEITALAUGARREN JELKALDIA**Erizaina
182**

Ez, otoi, luzaz engaina.
Egun dugu akiturik,
barda lo guti eginik.
Badateke beste aldirik.

**Isidro
183**

Populuak aldi honetan
zinez zure du bozkatu.
Herri Batasunarekin
zara berriz diputatu.

**Monzon
184**

Lotu natzaio borrokari
nahi bainuen aldatu,
giro berri bat ezarri,
Euskal Herria juntatu.

185

Egun utziko zaituztet
gauza anitz egiteko.
Jainkoak hartu nau bere
alorraren ikusteko.

**Maria Josefa
186**

Pena egiten didazu
hola mintzatzez, senarra.
Ez besoak apal, otoi,
baitugu zure beharra.

**Monzon
187**

Adio, ene laguna,
banoa ordezkari
Jainkoaren ikustera
atxikirik Herriari.

engainatu: entretenitu
akitu: nekatu
barda: bart
dateke: izango da

zure: zure alde

KANTA XI Azken otoitza

n1

Herioaren itzala, da enegatü
Ikusi gabetarik, ez nüan galtatü
Banüke estakürüa, sentipen, bekatü
Argiñabar heltzea, ezin ezeztatü.

n2

Abertzalegoari, eman düt bizia
Hortaz izanen sarri, gei elestaldia
Aitaren aitzinean, aipatüz Herria
Zer date arren ene, gaur erabakia?

n3

Han ere erranen düt, zer ahalkegarri
Azkarraren legea, zoinen asegarri
Eta ez balinbada, nihor epaikari
Ütziren düt borroka, hortan lagünari.

n4

Adio abertzale, handi txipiari
Ezari düt makila, bidean ageri
Berriz har dezazüen, ene ordezkari
Izan dadin Eüskadi, bihar süstagarri.

KANTA XI Azken otoitza

n1

Herioaren itzala da eneganatu
ikusi gabetarik. Ez nuen galdatu.
Banuke estakurua, sentipen, bekatu.
Arginabar heltzea ezin ezeztatu.

n2

Abertzalegoari eman diot bizia.
Hortaz, izanen sarri gai elestaldia
Aitaren aitzinean, aipatuz Herria.
Zer dateke, arren, ene gaur erabakia?

n3

Han ere erranen dut, zer ahalkegarri,
azkarraren legea zeinen asegarri.
Eta ez baldin bada nehor epaikari,
utziko diot borroka horretan lagunari.

n4

Adio, abertzale handi txipiari,
Ezarri dut makila bidean ageri
berriz har dezazuen ene ordezkari,
izan dadin Euskadi bihar sustagarri.

galdatu: galdegin, eskatu
estakuru: aitzakia
arginabar: egunsenti

sarri: laster
elestaldi: hizketaldi
ene: enetzat, niretzat

ahalkegarri: lotsagarri
asegarri: nekarazgarri
epaikari: epaile

AZKEN PEREDIKUA**188**

Eskerrik hanitz oroer
egün beitzen miragarri
Omenaldi baten hatsa
züekin zoin altxagarri.

189

Gizon handi batekila
egin dügü bidajea
Bere denbora güzian
üken beitu sinestea.

190

Kantore eta antzerki
itzaleko borrokari
Historiaren ardurak
merexi dü oritgarri

191

Euskaldünen altxatzeko
zütüan gano güziak
Haren lanaren segidan
zabal detzagün begiak.

192

Euskaldünek üken düe
müga bat üsü erdian
Eta noiz ahal dateke
ibiltzen ber baratzean.

193

Euskararen jarraikigoa
behar da gogoan hartü
Arbasoen irakaspena
gure üngürüan sartü.

194

Orit gitean halaber
Europa egiten dela
Eta euskaldünak ere
presoetan badirela.

195

Demokrazia dateke
agian gure salbamena
Eta gazteriarentzat
esperantza hoberena.

196

Gur(e) Euskal Herri maitea
laudatü züan Monzonek
Ahalaz egin dezagün
geroari indar denek.

197

Hortan üzten zütüegü
guri soegile güziak
Parka gure hüts txipiak
berriz ere goraintziak.

AZKEN PEREDIKUA**188**

Eskerrik anitz orori,
egun baitzen miragarri.
Omenaldi baten hatsa
züekin zein altxagarri!

189

Gizon handi batekin
egin dugu bidaia,
bere denbora güzian
ukan baitu sinestea.

190

Kantore eta antzerki,
itzaleko borrokari.
Historiaren ardurak
merexi du oroigarri

191

Euskaldunen altxatzeko
zituen gano guziak
Haren lanaren segidan
zabal ditzagun begiak.

192

Euskaldunek ukan dute
muga bat usu erdian.
Eta noiz ahal dateke
ibiltzen ber baratzean.

193

Euskararen jarraikigoa
behar da gogoan hartu.
Arbasoen irakaspena
gure inguruan sartu.

194

Oroit gaitezen, halaber,
Europa egiten dela,
eta euskaldunak ere
presoetan badirela.

195

Demokrazia dateke,
agian, gure salbamena,
eta gazteriarentzat
esperantza hoberena.

196

Gure Euskal Herri maitea
laudatu zuen Monzonek.
Ahalaz egin diezaiogun
geroari indar denek.

197

Horretan uzten zaituztegu
gure soegile guziak.
Barka gure huts txipiak.
Berriz ere goraintziak.

egun: gaurko eguna**kantore:** abesti**gano:** gogo**usu:** sarritan
dateke: izango da**jarraikigo:** jarraiera**preso:** espetxe**dateke:** izango da**ahalaz:** ahal den neurrian

KANTA XII**Larraine, gure herria****Errepika**

LARRAINE, gora da bortüan,
Jarririk ORHiren altzoan,
Sartürik ene odolean,
Ta бүrúa txütik, EÜSKAL HERRIan!

m1

ARGALArekin besarka,
Jarraiki düzü borroka,
Estatüek honar dezela
Eüskal Herri, Bat ta Librea!

m2

MONZON jauna, zü bezala,
Larrainen oldartzen gira,
Herri honen düintarzüna,
Nihork ez dezan, aztaparka!

Errepika

LARRAINE, gora da bortüan,
Jarririk ORHiren altzoan,
Sartürik ene odolean,
Ta бүrúa txütik, EÜSKAL HERRIan!

m3

Heben hüilant ez dadila,
Erhia südür peala,
Bestelan izanen beita,
Berriz ere ke eta txinka!

m4

Larrainen Eüskal Herrian,
Libreki bizi giotean,
Etxek makila esküan,
Entelegüa bihotzean!

Errepika

LARRAINE, gora da bortüan,
Jarririk ORHiren altzoan,
Sartürik ene odolean,
Ta бүrúa txütik, EÜSKAL HERRIan!

m5

MONZON jauna zük bezala,
Jarraik dezagün borroka,
Estatüek honar dezatela
Heben nagusiak, gü girela!

Errepika

LARRAINE, gora da bortüan,
Jarririk ORHiren altzoan,
Sartürik ene odolean,
Ta бүrúa txütik, EÜSKAL HERRIan!
Ta бүrúa txütik, GURE LÜRREAN!

KANTA XII**Larraine, gure herria****Errepika**

Larraine, gora da bortuan,
jarririk Orhiren altzoan,
sarturik ene odolean,
eta burua zutik Euskal Herrian.

m1

Argalarekin besarka,
jarraiki duzu borroka,
estatuiek onar dezatela
Euskal Herri bat eta librea.

m2

Monzon jauna, zu bezala,
Larrainen oldartzen gara,
herri honen duintasuna
nehork ez dezan atzaparka.

Errepika

Larraine, gora da bortuan,
jarririk Orhiren altzoan,
sarturik ene odolean,
eta burua zutik Euskal Herrian.

m3

Hemen hullan ez dadila
eria sudurpera,
bestela izanen baita
berriz ere ke eta txingar.

m4

Larrainen, Euskal Herrian,
libreki bizi gaitezen
atxiki makila eskuan,
entelegua bihotzean.

Errepika

Larraine, gora da bortuan,
jarririk Orhiren altzoan,
sarturik ene odolean,
eta burua zutik Euskal Herrian.

m5

Monzon jauna, zuk bezala,
jarraiki dezagun borroka,
estatuiek onar dezatela
hemen nagusiak gu garela.

Errepika

Larraine, gora da bortuan,
jarririk Orhiren altzoan,
sarturik ene odolean,
eta burua zutik Euskal Herrian.
Eta burua zutik Gure Lurrean!

hullandu: [hurbildu](#)